eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco — Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATEAN EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIA ESKURATZEKO PROBEN DEIALDIA

Euskal Herriko Unibertsitatean Euskaraz Irakasteko Gaitasun Agiria eskuratzeko Arautegian xedatutakoari jarraituz, UPV/EHUn euskaraz irakasteko behar den hizkuntza-maila eta -gaitasuna frogatzeko probak egingo dira.

Proba hauen arautegia (Euskal Herriko Unibertsitatean Euskaraz Irakasteko Gaitasun Agiria eskuratzeko Arautegia), eta proba-eredua nahiz zuzenketa-irizpideak jasotzen dituen Proben Batzordearen Akta Interneteko helbide honetan daude eskuragarri: http://www.ehu.eus/euskara (*Azterketak / Euskara probak* azpiatalean). Euskararen arloko Errektoreordetzaren, Gipuzkoako Campusaren eta Arabako Campusaren iragarki-tauletan ere kontsultatu daiteke.

Ahozko eta idatzizko atalak izango dituzten proba hauek **maiatzaren 31n eta ekainaren 4an** egingo dira. Lekua eta gainerako xehetasunak behin-behinekoz azterketa egiteko onartuak izan direnen zerrendarekin batera jakinaraziko dira. Proba hauetan parte hartzeko eskariak aurkeztean, interesatuak honako dokumentu hauek ekarri beharko ditu: nortasun agiri nazionalaren kopia, unibertsitate-tituluaren fotokopia (lizentziatu, doktore, ingeniari, arkitekto, diplomatu, graduatu) eta probari dagozkion tasak (15 euro) ordaindu izanaren agiri originala. Ordainketa honako kontu honetan egingo da:

Kutxabank
UPV/EHU - Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetza
2095 0292 91 3239001792

Eskariak **maiatzaren 6tik 20ra** (biak barne) aurkeztu beharko dira Euskal Herriko Unibertsitateko erregistroetan, hain zuzen ere UPV/EHUren 2001eko martxoaren 19ko erabakian zehaztutako bulegoetan (ikus http://www.ehu.es/oficinas_registro.html).

Aurreko pasartean aipaturiko Erregistro Orokorraren lau atalen ordutegia hau da:

Astelehenetik ostegunera, 9:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 16:30era. Ostiraletan, 9:00etatik 13:00etara.

Onartutako lehiakideen behin-behineko zerrenda **maiatzaren 22an** argitaratuko da, bai Interneteko helbide honetan (http://www.ehu.eus/euskara), bai Euskararen arloko

CONVOCATORIA DE PRUEBAS DE ACREDITACION DEL DOMINIO DE LA LENGUA VASCA PARA LA DOCENCIA EN LA UNIVERSIDAD

De acuerdo con lo dispuesto en la Normativa Sobre la Acreditación del Dominio de la Lengua Vasca para la Docencia en la Universidad del País Vasco, se van a llevar a cabo las pruebas de acreditación del nivel y aptitud lingüísticos que se precisan para la enseñanza en euskera en la UPV/EHU.

La normativa que regula dichas pruebas (Normativa Sobre la Acreditación del Dominio de la Lengua Vasca para la Docencia en la Universidad del País Vasco) así como el Acta de la Comisión de las Pruebas en la que se recoge el modelo de examen y los criterios de corrección están a disposición de las personas interesadas en la siguiente dirección de Internet: http://www.ehu.eus/euskara (apartado *Exámenes / Pruebas de euskera*). Esta información puede ser consultada también en los tablones de anuncios del Vicerrectorado de Euskera, Vicerrectorado del Campus de Guipúzcoa y Vicerrectorado del Campus de Álava.

Las pruebas, que constarán de una parte oral y una escrita, tendrán lugar los días **31 de mayo y 4 de junio**. El lugar de realización de las mismas y otros detalles se darán a conocer junto con la relación provisional de admitidos a examen. Las personas interesadas en participar en las pruebas deberán presentar una solicitud acompañada de una fotocopia de su documento nacional de identidad, fotocopia del título universitario que poseen (licenciado, doctor, ingeniero, arquitecto, diplomado, graduado) y resguardo original de haber abonado las tasas de 15 euros en la siguiente cuenta:

Kutxabank
UPV/EHU - Vicerrectorado de Euskera y Formación Continua
2095 0292 91 3239001792

El plazo de presentación comprenderá del **6 al 20 de mayo** (ambos inclusive) y las solicitudes deberán presentarse en los registros de la UPV/EHU citados en la resolución de 19 de marzo de 2001 de la UPV/EHU (Ver http://www.ehu.es/oficinas_registro.html).

El horario de las cuatro secciones del Registro General es el siguiente:

De lunes a jueves de 9:00 al 13:00 y de 15:00 a 16:30. Los viernes de 9:00 a 13:00.

La lista provisional de candidatos admitidos se hará pública el día **22 de mayo**, tanto en la siguiente dirección de Internet (http://www.ehu.eus/euskara) como en los tablones de anuncios

Errektoreordetzaren eta Campusetako Errektoreordetzen iragarki-tauletan. Onartuen behin betiko zerrenda leku berean iragarriko da **maiatzaren 28an**.	del Vicerrectorado de Euskera y de los Vicerrectorados de Campus. La lista definitiva de candidatos admitidos se hará pública el día **28 de mayo**, en los mismos lugares.
Eskari-ereduak, deialdi honekin batera, aipatutako Interneteko helbidean, http://www.ehu.eus/euskara (Azterketak / *Euskara Probak* atalean), eskuratu ahal izango dira, bai eta Errektoretzan eta Campusetako Errektoreordetzetan ere.	Los modelos de solicitud pueden obtenerse, junto con la presente convocatoria, en la susodicha dirección de Internet, http://www.ehu.eus/euskara (apartado Exámenes / *Pruebas de euskera*) y se facilitarán asimismo en el Rectorado y en los Vicerrectorados de Campus).
Proba hauek gainditzen dituzten lehiakideei ziurtagiria emango zaie.	A los candidatos que resulten aptos se les entregará un certificado de acreditación.
Ohar garrantzitsua: proba hauen bidez lor daitekeena ez da UPV/EHUk onesten duen gaitasun agiri bakarra. Proben arautegiko honako artikulu hau arretaz irakurtzea gomendatzen da: bederatzigarren artikulua, unibertsitateak aldez aurreko tramiterik gabe eta eragin guztiekin onartzen dituen titulu baliokideen zerrenda jasotzen duena (Euskal Herriko Unibertsitatean Euskaraz Irakasteko Gaitasun Agiria eskuratzeko Arautegia).	**Nota importante**: el certificado de acreditación que se obtiene mediante la superación de estas pruebas no es el único que reconoce la UPV/EHU. La relación de los títulos equivalentes que la Universidad reconoce sin trámite previo y con todos sus efectos está recogida en el artículo nueve de la Normativa Sobre la Obtención de la Acreditación del Dominio de la Lengua Vasca para la Docencia en la Universidad del País Vasco. Se recomienda, por tanto, la lectura atenta del mencionado artículo.
Leioan, 2019ko apirilaren 29an	En Leioa, a 29 de abril de 2019

Jon Zarate Sesma

UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko errektoreordea /
Vicerrector de Euskera y Formación Contínua de la UPV/EHU